**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

---------------

**18. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, partaidetzazko aurrekontuen gainekoa.**

“Donostia, 2016ko apirilaren 22a

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Ogasun Batzordean egin zen interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Uste dugu herri partaidetzak izan behar duela

**18. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre presupuestos participativos.**

“Donostia a 22 de abril de 2016

Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la COMISION DE HACIENDA.

JUSTIFICACIÓN

Consideramos que la participación ciudadana

gobernu ekintzaren printzipioetako bat. Halaxe dio indarrean den legediak eta halaxe eskatzen du gizartearen parte handi batek ere. Herri partaidetza publikoaren apustu berritzaile bat, udal baliabide publikoak komunitatean planifikatzeko oinarrizko printzipio gisa partaidetzazko demokrazia aldezten duena, partaidetzazko aurrekontuak dira. Era horretako aurrekontuen helburu nagusia da udalbatzen inbertsio politikari buruz eztabaidatzeko eta erabakitzeko gune bat sortzea herritarrekin.

debe ser un principio que rija la acción de gobierno, en consonancia con lo señalado en la legislación vigente y haciéndonos eco de una amplia demanda social existente en la actualidad. Una apuesta innovadora de participación pública ciudadana, que propugna como principio básico la democracia participativa para la planificación comunitaria de los recursos públicos municipales, la constituyen los presupuestos participativos, cuyo objetivo principal es el de generar un espacio ciudadano de debate y decisión sobre las políticas de inversión de las corporaciones municipales.

Uste dugu hurrengo udal aurrekontuak prestatzeko garaia egokiera ona izan daitekeela Udalaren funtzionamendu demokratikoa hobetzeko, herritarrei pisu eta protagonismo handiagoa emateko eta aurrekontuak hain urrutiko eta hain arraro ez suertatzeko; izan ere, oso gai garrantzitsua da hori, baina oso urrunekoa askotan.

Creemos que la elaboración de los próximos presupuestos municipales es una ocasión para mejorar el funcionamiento democrático del Ayuntamiento, para dar un mayor peso y protagonismo a la ciudadanía y para disminuir el alejamiento y extrañeza frente a un tema, como el de los presupuestos municipales, tan importante pero tan lejano en muchas ocasiones.

Partaidetzazko aurrekontuetan kontuan hartzen dira hiriko elkarteek, taldeek eta herritarrek adierazitako beharrak eta udal kudeaketaren zenbait alderdi hobetzeko egindako proposamenak; hala, herritarrek udal kutxarako jartzen duten diruaren parte bat, urtero-urtero, zuzenean haiek erabakitako horrexetan erabiltzen da. Uste dugu, gainera, partaidetzazko aurrekontuetan lekua izan dezaketela normalean erabakiak hartzeko prozesuetatik kanpo egon ohi diren taldeek eta pertsonek.

Los presupuestos participativos recogen las necesidades y propuestas de mejora de diferentes aspectos de gestión municipal realizadas por asociaciones, colectivos y vecinas y vecinos de la ciudad, de manera que el destino anual de una parte del dinero que los ciudadanos aportan a las arcas municipales se decide directamente por ellos y ellas. Creemos, además, que los presupuestos participativos pueden dar cabida a colectivos y personas que por lo general permanecen excluidos de los procesos de toma de decisiones.

Herri Partaidetzari buruzko Arau Organikoak, 2007an onartuak, jasotzen ditu era horretako aurrekontuak, baina, egiaz, gutxi batzuetan baino ez da egin aurrekontuak hala egiteko

A pesar de que la Norma Orgánica de Participación Ciudadana aprobada en 2007 recoge la inclusión de este tipo de presupuestos, la realidad ha demostrado que

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

saioa, eta, azken urte honetan, EAJ eta PSE udal gobernuan sartzeaz bat, alde batera utzi da guztiz.

tan sólo en algunas ocasiones se ha realizado un intento por su elaboración, y ya en este último año, con la entrada en el gobierno municipal de PNV y PSE se ha dejado totalmente de lado.

Hala ere, uste dugu era horretako aurrekontuak abian jartzeak ez duela laguntzen bakarrik udal baliabideak zertan erabiliko diren erabakitzen, baizik eta baita beste alderdi hauetan ere:

Sin embargo, consideramos que la puesta en marcha de este tipo de presupuestos contribuye no solo a decidir sobre el destino de los recursos municipales, sino también a:

- Herritarrak Donostiako bizimoduan modu esanguratsuan eragiten duten erabakietan parte aktibo eta konprometitu izan daitezen sustatzea, eta, hala, hirian gertatzen denaren protagonista aktibo bihurtzea.

- Ahalik eta parte hartzerik handienarekin bilatzea egiaz ditugun beharrentzako irtenbideak.
- Herritarren autoestimua eta erantzunkidetasuna indartzea, udal bizitza politikoaren parte garrantzitsu gisa.
- Erabakien gardentasuna sustatzea eta administrazio prozedurak eta Udalaren barne funtzionamendua ezagutzea.
- Herritarren, ordezkari politikoen eta administrazioko teknikarien artean eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko guneak sortzea, komunitate sena oinarri hartuta, bidezko eta berdintasunezko hiri bat eraikitzeko.

- Promover que la ciudadanía sea parte activa y comprometida en la toma de decisiones que afectan de manera notable a la vida de Donostia / San Sebastián, y así convertirla en protagonista activa de lo que ocurre en la ciudad.
- Que se busque, con la máxima participación, soluciones que se correspondan con las necesidades reales que tenemos.
- Que se refuerce la autoestima y corresponsabilidad de la ciudadanía, como parte importante de la vida política municipal.
- Promover la transparencia de las decisiones y conocer los procedimientos administrativos y el funcionamiento interno del Ayuntamiento.
- Crear espacios de diálogo y toma de decisiones entre la ciudadanía, los y las representantes políticos y el personal técnico de la administración, que permiten construir, con un sentido comunitario, una ciudad más justa e igualitaria.

Gure ustez, udalbatzaren betekizuna da udal aurrekontuak egiteko orduan donostiarrei entzutea, eta, horretarako, beharrezkoa iruditzen zaigu partaidetzazko aurrekontuen araudi bat egitea.

Consideramos una exigencia de la corporación municipal oír a los ciudadanos y ciudadanas de Donostia / San Sebastián en la elaboración de los presupuestos municipales para lo cual estimamos necesaria la elaboración de un Reglamento de Presupuestos Participativos.

Hori guztia dela eta, hauxe da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente:

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jar dezala herritarrek parte hartzeko mekanismoren bat, 2017ko aurrekontuetan haien ekarpenak sartzeko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari aurkez dezala partaidetzazko aurrekontuen araudi bat, 2017tik aurrera aurrekontuak araudi horren arabera egin daitezen.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea".

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que articule algún mecanismo de participación ciudadana cuyas aportaciones sean incluidas en los presupuestos de 2017.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a que presente un Reglamento de Presupuestos Participativos con el objetivo de que a partir de 2017 los presupuestos puedan elaborarse de acuerdo al mismo.

Fdo. Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Miren Albistur Garmendia andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak eta Miren Azkarate Villar andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Axier Jaka Goikoetxea, Dª. Duñike Agirrezabalaga Ugarte y Dª. Miren Azkarate Villar, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 3 – PP.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**19. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA Taldeak egina, etxebizitza hutsei buruzkoa.**

“Donostia, 2016ko apirilaren 22a

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAK 2016ko apirilaren 18an egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hilaren 18ko interpelazioan adierazi genuen bezala, EAJren eta PSEren 2015-2019 Gobernu Programan, Hirigintza Jasangarria, Etxebizitza eta Hiri Proiektuen Atalean (VIII), etxebizitza gaian planteatzen diren helburuen artean dago Etxegintza bidez zerbitzu bat abiaraztea auzotarrek etxebizitzak trukatu ahal izan ditzaten etxebizitzen irisgarritasunarekin

**19. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre vivienda vacía.**

“Donostia a 22 de abril de 2016

Loïc Alejandro, Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la COMISION DE DESARROLLO Y PLANIFICACION TERRITORIAL del día 18-04-2016.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como manifestamos en la interpelación del pasado día 18, el programa de Gobierno 2015-2019 de PNV y PSE en su apartado de VIII. Urbanismo sostenible, vivienda y proyectos de ciudad, plantea como uno de los objetivos en materia de vivienda la puesta en marcha, a través de Etxegintza, de un servicio para posibilitar las permutas de viviendas para

edo tamainarekin lotutako premiei erantzuteko. Era berean, planteatzen da jardutea Eusko Jaurlaritzaren Alokabide programarako etxebizitza gehiago antzemateko.

atender necesidades de accesibilidad o relacionadas con el tamaño de la vivienda. Asimismo, se plantea actuar para captar un mayor número de viviendas para el programa de alquiler del Gobierno Vasco Alokabide.

Hala ere, nahiz eta kalkulatzen den udalerrian 4.000 etxebizitza baino gehiago daudela hutsik, udal gobernuak etxebizitza berriak eraikitzearekin zerikusia duten berriak bakarrik ematen ditu aditzera. Gainera, ez dirudi interes handirik duenik eskueran dituen tresnak erabiliz ezertarako erabiltzen ez diren etxebizitza horiek mobilizatzeko, esate baterako gainordain bat jarriz ondasun higiezinen gaineko zergan, eta ez dirudi Eusko Jaurlaritzak presa handirik duenik etxebizitza hutsen erregistro bat egiteko, Etxebizitzen Legean ezarritakoarekin bat.

No obstante, y a pesar de que es estima en más de 4.000 las viviendas vacías en el municipio, el Gobierno municipal solo da a conocer noticias relacionadas con la construcción nuevas viviendas. Además, no parece tener mucho interés en movilizar ese parque de viviendas inutilizadas usando las herramientas que tiene a su disposición, como el recargo en el IBI a las mismas, y no parece que el Gobierno vasco vaya a darse mucha prisa en elaborar el registro de viviendas vacías establecido en la Ley de Vivienda.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak Euskadiko etxebizitza hutsei buruz egindako txostenak dioenez, 2013an 4.600 etxebizitza inguru zeuden hutsik Donostian. Horrez gain, txostenak dio 2009an etxebizitza hutsak % 6,2 zirela, eta 2013an % 7,5. Azkenik, badakigu Donostia biztanleak galtzen ari dela. Horrek esan nahi du etxebizitza asko daudela hutsik hirian, denborarekin kopuru hori handitzen ari dela eta gero eta biztanle gutxiago dagoela.

El informe sobre vivienda vacia en Euskadi, del Observatorio Vasco de la Vivienda, indica que en 2013 había unas 4600 viviendas deshabitadas en Donostia. Indica también que el porcentaje de vivienda vacia en 2009 era del 6,2% y en 2013 del 7,5%. Por último sabemos que Donostia es una ciudad en retroceso poblacional. Esto significa que existe ya mucha vivienda deshabitada en la ciudad, que su cantidad va aumentando con el tiempo, y que cada vez hay menos habitantes.

Zenbat etxebizitza egiten den eta eskuratzeko zer zailtasun dauden ikusita, argi dago beharrezkoa dela azterketa sakon bat egitea eta fokua arazoan jartzea, etxebizitzarako sarbidean alegia, eta ez horri lotutako interes espekulatiboetan; izan ere, interes horiek ez dute arazoa konpondu eta, gainera, beste handiago bat sortu dute: higiezinen burbuila.

El número de viviendas que se han construido, y las dificultades de acceso a las mismas, demuestra que es necesario hacer un análisis profundo que ponga el foco de atención en el problema: el acceso a la vivienda, y no en los intereses especulativos sobre la misma, que no han resuelto el problema, además de haber creado otro mayor, la burbuja inmobiliaria.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen

En la comisión, el Concejal Delegado explicó

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

etxebizitza plan bat egingo dutela Etxegintzako kudeatzaile berriarekin. Era berean, adierazi zuen orain arte egin dituztela gauza batzuk etxebizitzak trukatzeko edo Alokabide programarako etxebizitza gehiago atzemateko baina ez direla oso eraginkorrak izan. Hori dela eta, galdetu genuen aztertu ote duten zergatik ez diren eraginkorrak izan eta eraginkorragoak izateko irtenbiderik bilatu ote duten, eta zinegotzi ordezkariak erantzun zuen "beste gauza batzuetan kontzentratuta" egon direla. Hori erantzun etsigarri samarra izan zen hori guretzat.

Lehentasunezkoak iruditzen zaizkigu:

- Etxebizitzaren egoeraren eta dagoen eskariaren ikuspegi global eta argi bat izatea.
- Drastikoki gutxitzea hirian hutsik dauden etxebizitzen kopurua.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari Etxebizitza Planean lehentasunezkotzat jo dezala

- azterketa xehe bat egitea, sexuaren arabera bereizita, Donostian etxebizitza aldetik zer behar dauden ikusteko eta jendeari horren berri ematea. Azterketa horretan kontuan izango dira alderdi hauek: zer tamainatako etxebizitza eskatzen den, alokatzeko edo erosteko den, zer eskari dagoen auzo bakoitzean, eskari hori lehenengo etxebizitza eskuratzeko den ala ez, etxebizitza trukatzeko edo egokitzeko zer behar dauden, eta behar den gainerako informazio guztia, etxebizitza politikaren

que con la nueva gerencia de Extegintza se elaborará un Plan de Vivienda. Del mismo modo, indicó que hasta ahora se han hecho algunas cosas para posibilitar las permutas de viviendas o para captar un mayor número de viviendas para el programa Alokabide, pero que han sido poco efectivas. Al preguntar si se había estudiado por qué habían sido poco efectivas y si se había buscado soluciones para hacerlas más efectivas, el Concejal Delegado contestó que habían estado "concentrados en otras cosas". Lo cual fue una respuesta un tanto decepcionante para nosotras.

Consideramos prioritarios:

- Tener una visibilidad global y clara del estado de la vivienda y de la demanda existente.
- Reducir drásticamente la cantidad de vivienda deshabitada en al ciudad.

Es por ello que presentamos la siguiente

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a establecer como máximas prioridades en el Plan de Vivienda:

- La realización y comunicación pública de un análisis detallado de la necesidad de vivienda en la ciudad, desagregado por sexo, que especifique el tamaño de vivienda demandado, si es en alquiler o compra, la demanda por barrios, si la demanda es para acceder por primera vez a una vivienda o no, las necesidades de permuta o de adaptar la vivienda, y toda aquella información que sea necesaria para poder realizar una política de vivienda que tenga como único objetivo

helburu bakarra donostiarrek etxebizitza bat eskuratzeko duten beharrari erantzutea izan dadin eta oinarrizko ondasun hori espekulazio gai bihur ez dadin.

- Donostian dauden etxebizitza hutsen kopurua gutxitzeko estrategia handinahi bat egitea eta jendeari horren berri ematea.

satisfacer las necesidades de acceso a la misma de la ciudadanía de Donostia/San Sebastian, evitando que un bien fundamental sea objeto de especulación.

- La elaboración y comunicación pública de una estrategia ambiciosa para reducir el numero de viviendas deshabitadas en la ciudad.

Sinatua: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

Fdo. Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Ricardo Burutaran Ferre jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, Dª. Miren Albistur Garmendia, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Ricardo Burutaran Ferré, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**20. Kontrol mozioa PP taldeak aurkeztua, zenbait saltokik gune publikoa abusuz erabiltzeari buruzkoa.**

"Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2016ko

**20. Moción de control presentada por el Grupo PP relativa al uso del espacio público por parte de comercios.**

"Doña Miren Albistur Garmendia, portavoz del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de

apirilaren 18an izan zuen bileran zenbait saltokik gune publikoa abusuz erabiltzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Merkatarien elkarteek azken hilabeteetan salatu dutenez, Donostiako Parte Zaharreko saltoki batzuek abusuz erabiltzen dute gune publikoa eta beren produktuak nahi bezala jartzen dituzte establezimenduaren kanpoko aldean, bide publikoaren parte bat okupatuz eta oinezkoei pasatzea eragotziz.

Jabari publikoa neurriz gain hartu eta aprobetxatzeak, inguru horietako bizilagunen eta oinezkoen segurtasunari eta irisgarritasunari eragiteko moduko egoerak izatea ere ekarri du, batzuetan, dendarien elkarteek salatu dutenez; izan ere, dendari batzuek, nahiz eta gutxi diren, argi kableetatik eta etxeetako elikatze iturrietatik zintzilik jartzen dituzte beren produktuak, eta hori arriskutsu gerta daiteke.

Joan den urtearen amaieratik ari dira merkatariak egoera hori gerarazteko eta arauak betearazteko eske. Egoera horrek Parte Zaharreko dendei eragiten die, baina hiriko beste auzo batzuetan ere gertatzen da. Merkataritzako zinegotzi eskuordedunak Merkataritzako Aholku Batzordean hitz eman zuen zuzenduko zituela horko kontuak. Bada, beraz, Gobernu Taldearen konpromiso bat alde horretatik.

Gaur egun, gure hirian ez dago arau zehatzik dendek-eta bide publikoak okupatzeko,

Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 18 de Abril de 2016, relativa al uso del espacio público por parte de comercios.

JUSTIFICACION

En los últimos meses asociaciones de comerciantes han denunciado la existencia de diversos establecimientos de la Parte Vieja donostiarra que hacen un uso abusivo del espacio público, ocupando parte de la vía pública y dificultando el tránsito de peatones, al colocar de forma indiscriminada parte de sus productos en el exterior del establecimiento.

El uso abusivo en la ocupación y aprovechamiento del dominio público llega a provocar, según denuncian las asociaciones de comerciantes, situaciones que afectan a la propia seguridad y accesibilidad de vecinos y transeúntes de la zona ya que, unos pocos comerciantes, llegan a exponer algunos de sus productos suspendidos directamente de los cables de alumbrado y alimentación eléctrica de los inmuebles, con el consiguiente peligro, además.

Piden los comerciantes, desde finales del año pasado, que se tomen medidas para poner freno a esta situación, y que se hagan cumplir las normas. Esta situación afecta a los comercios de la Parte Vieja, pero es extensible a otros barrios de la ciudad que sufren una situación similar. El Concejal Delegado de Comercio, al respecto, asumió -en el Consejo Asesor de Comercio- un compromiso para poner orden en esta cuestión. Por tanto, existe ya un compromiso por parte del Equipo de Gobierno.

Actualmente, en nuestra ciudad, no existe regulación específica de la ocupación de vías

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ostalaritzako establezimenduek terrazak jartzeko diren arauak besterik. Beraz, guk uste du badagoela beharra dendek lokaletik kanpora jartzen dituzten erakusgarri, kartel, salgai eta beste gauza batzuekin bide publikoa nola hartu dezaketen arautzeko, gune publikoa arautzen duten gainerako arauekin bat etortzeko moduan, bereziki irisgarritasunaren ingurukoekin.

públicas para el sector comercial, a excepción de la normativa sobre terrazas en los establecimientos hosteleros. Por tanto, entendemos necesario regular en nuestra ciudad la ocupación de vía pública por parte de expositores, carteles, productos y artículos diversos que los comerciantes exhiben o ponen a la venta del público, en general, fuera de sus establecimientos; y en armonía con el resto de normas que regulan el espacio público; entre otras, las relativas a la accesibilidad.

Gure Udalak ez duenez jabari publikoa okupatzearen gaineko araudi orokor bat, komeni litzateke araudi hori izatea Donostiako udalerri guztirako, Merkataritzako Aholku Batzordean erabaki zen bezala. Araudi orokor hori izanez gero, erraztu eta ordenatu egingo litzateke dendariek beren produktuak kalera segurantzi guztiarekin ateratzeko aukera. Eta, beste aldetik, Udalak ere tasa bat kobratzeko bidea izango luke gune publikoa okupatzegatik, eta, hartara, baliabide batzuk eskuratuko lituzke, ostalaritzako terrazekin egiten duen bezala. Hori dela eta, araudi orokor bat izan behar dugunez, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

Dado que este Ayuntamiento adolece de un marco general regulatorio de la ocupación del dominio público, sería conveniente dotarnos de dicho marco regulador para todo el ámbito municipal de San Sebastián, como se acordó en el Consejo Asesor del Comercio. La creación de ese marco general facilitaría y ordenaría la posibilidad de que los comerciantes pudieran sacar los productos a la calle con todas las garantías. Y, por otro lado, permitiría al Ayuntamiento poder cobrar una tasa por esa ocupación de vía pública generando, así, recursos para el Ayuntamiento, como se hace con las terrazas de hostelería, por ejemplo. Ante la necesidad de dotarnos de ese marco regulatorio integral, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu Taldeari eskatzen die Udalak, zentzuzko denbora tarte batean, gune publikoa okupatzea osorik arautuko duen ordenantza bat izateko behar diren baliabideak abian jartzeko.

El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que active los recursos necesarios de este Ayuntamiento para que, en un plazo de tiempo prudente, podamos disponer de una Ordenanza que regule la ocupación del espacio público de una manera integral.

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

En Donostia/ San Sebastián, a 22 de Abril de 2016

Miren Albistur Garmendia

Miren Albistur Garmendia

Talde Popularraren bozeramailea".

Portavoz del Grupo Popular".

Jose Maria Murguiondo Casal jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Jose María Murguiondo Casal, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**21. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, hirian amiantoa duten eraikinen mapa edo errolda bat egitea eta beste neurri batzuk hartzea dela eta.**

"Ricardo Burutaran Ferrek, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, gure hirian amiantoa duten eraikinen mapa edo errolda bat egitea eta beste neurri batzuk hartzea dela eta, Udalbatzan azter dadin. Mozioa apirilaren 18ko batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Amiantoa oso agente arriskutsua da, gaitz larriak eragin ditzakeena eta lan egoera askotan presente dagoena. Alde horretatik, arazo handi bat amiantoa –asbesto, uralita edo zuntz zementu ere deitua– ez ezagutzea

**21. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la elaboración de un mapa o censo de edificios con amianto y otras medidas a implementar en relación al mismo.**

"Ricardo Burutaran Ferré, Concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, en relación a la elaboración de una mapa o censo de edificios con amianto y otras medidas a implementar en relación al mismo. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en comisión el pasado 18 de abril.

JUSTIFICACIÓN

El amianto es un agente especialmente peligroso que puede causar enfermedades graves y que está presente en gran número de situaciones de trabajo. En este sentido, un gran problema es el conocimiento- y falta del mismo-

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

da. Langile asko aritzen dira amiantoaren eraginpean lanean. Mantentze-lanen eta deskontaminazioaren sektoreetan gertatzen da batez ere hori, baina beste langile batzuk ere egon daitezke haren eraginpean (teilatu-emaileak, argiketariak, berokuntza instalatzaileak, antenazaleak, iturginak…).

por lo que respecta al amianto también conocido como asbesto, uralita o fibrocemento. Muchas personas trabajadoras se ven expuestas al amianto en su trabajo. Esto ocurre, sobre todo, en los sectores de mantenimiento y descontaminación, pero también pueden verse afectadas otro personal (techadores, electricistas, instaladores de calefacción, antenistas, fontaneros...).

Indarrean den legediaren arabera, enpresak behartuta daude langileei prestakuntza egokia ematera, baldin eta amianto hautsaren edo amiantoa duten materialen eraginpean badaude edo egon badaitezke.

La legislación vigente impone ya a la parte empresarial la obligación de ofrecer formación adecuada a todas las personas trabajadoras que estén expuestas, o puedan estarlo, al polvo de amianto o a materiales que contengan amianto.

Bizitegi higiezinetan bizi direnek ere badute arrisku hori. Izan ere, 1999/77/EE Zuzentarauak dio oraindik ez dela zehaztu zer esposizio mailatik behera ez duen amianto krisolitoak arrisku kantzerigenorik eta giza osasuna babesteko modu eraginkor bat dela amianto krisolitozko zuntzak eta substantzia hori duten produktuak erabiltzeko debekua jartzea.

Tampoco escapan a este riesgo los inmuebles residenciales y las personas que habitan en los mismos. Y es que, como bien dice la Directiva 1999/77/CE, “todavía no se ha establecido un nivel mínimo de exposición por debajo del cual el amianto crisótilo no plantee riesgos cancerígenos” y “que un medio eficaz para proteger la salud humana es prohibir la utilización de  fibras de amianto crisótilo y los productos que la contengan”.

Esposizio mailei, latentzia aldiei eta gaixotasunen garapenari buruzko azken ikerketek diote esposizioa oso txikia izanda ere, latentzia aldia luzea bada, amiantoarekin zerikusia duten hainbat gaitz etor daitezkeela. Beraz, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpenak dioen bezala, “amiantoaren eraginpean jartzea arriskutsua da herritarrentzat, orokorrean”.

Las últimas investigaciones científicas sobre la cuestión de los níveles de exposición, los períodos de latencia y el desarrollo de las enfermedades determinan que muy bajas dosis de exposición, combinadas con un largo período de latencia, dan lugar a diversas enfermedades relacionadas con el amianto. Por consiguiente, tal y como dice el Dictamen del Comité Económico y Social Europeo aprobado en febrero de 2015, “la exposición del amianto supone una amenaza para la población en general”.

Batzorde horrek dioenez, lehentasunezko

Dicha Comisión establece que “la completa

helburua izan behar du amianto erabilia eta substantzia hori duten produktuak guztiz deuseztatzeak.

Gainera, legeak behartu egiten du amiantoa kentzera, baldin eta egoera txarrean badago edo bizitza baliagarriaren azkenera iritsi bada (hondatuta badago, iragazte arazoak baditu…).

Horretarako, ezinbestekoa da informatzeko, prestakuntza emateko eta amiantoa deuseztatzeko neurriak hartzea Donostian, modu horretara hiri seguruago eta osasungarriago bat lortuko baitugu donostiarrentzat.

Hori dela eta, joan den legealdian, amiantoaren arazoari buruzko bide bat lantzen hasi ginen, eta beharrezkotzat jo genuen amiantoa agertzen denean Udalak nola jarduten duen eta zer jarduera protokolo dituen aztertzea eta berrikustea. Orobat, ezinbestekotzat jo genuen, departamentuen artean eta beste batzuen artean, gure hirian amiantoa duten eraikinen edo higiezinen mapa edo errolda bat egitea; horretarako, hori prestatzeko aurretiazko lanak egiten hasi ginen.

Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariari egindako interpelazioan, galdetu genion zergatik ez duten lizitaziora atera mapa edo errolda hori egiteko prozedura negoziatua edo, atera badute, zergatik ez duten oraindik martxan jarri, eta hark erantzun zigun ez zuela interpelazioan azaldutako kontu horren berri baina ondo iruditzen zitzaiola hasitako lan ildo horrekin jarraitzea eta aipaturiko dokumentua egitea.

Jarrera hori eskertu egin nahi diogu zinegotzi

eliminación de todo el amianto usado y de todos los productos que contengan aminato debe de ser un objetivo prioritario”.

Incluso actualmente la legislación obliga a la retirada del amianto que esté en mal estado o que haya terminado su vida útil (que presente desperfectos, problemas de filtraciones...).

En este sentido es preciso la implementación de distintas medidas en Donostia en la línea de informar, formar y erradicar el amianto que tenemos en nuestra ciudad, contribuyendo con ello a hacer una ciudad más segura y saludable para las y los donostiarras.

Por ello la pasada legislatura se inició una línea de trabajo en relación al problema del amianto; considerándose necesario analizar y revisar el seguimiento de actuaciones que se realizaban por parte del Ayuntamiento tras su aparición, protocolos correspondientes de actuación... Se consideró necesario abordar, de forma interdepartamental y, entre otros, la elaboración de un mapa o censo de edificios o inmuebles con amianto en nuestra ciudad; a tal fin, se empezaron los trabajos previos para la realización del mismo.

Interpelado el delegado de Urbanismo Sostenible sobre las razones por las que no se había aprobado todavía las bases para sacar a licitación o en su caso puesto en marcha el procedimiento negociado correspondiente para la elaboración del citado mapa o censo, nos contestó que desconocía la cuestión interpelada, pero que le parecía correcto la continuidad de la línea de trabajo iniciada y la elaboración del citado documento.

Queremos agradecer la postura del citado

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ordezkariari, bai eta aurkeztutako ekimenari emandako erantzuna ere, eta horrexegatik, modu erabat eraikitzailean, EH Bildu udal taldeak KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

delegado, y la respuesta dada con respecto a la iniciativa presentada; precisamente por ello, y en una línea totalmente constructiva, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari egin dezala gure hirian amiantoa duten eraikin edo higiezinen errolda edo mapa bat.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar un censo o mapa de edificios o inmuebles que contengan amianto en nuestra ciudad.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernuari har ditzala hartu beharreko neurriak amiantoaren eraginpean egoteak osasunerako izan ditzakeen arriskuen edo eraginen inguruan informatzeko eta prestatzeko amiantoa duten eraikinetan edo instalazioetan jardun behar duten udal langileak.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno a implementar medidas de información y formación del personal municipal que en su quehacer profesional tenga que enfrentarse a edificios o instalaciones con amianto sobre los riesgos o afecciones que supone para la salud.

Halaber, udal gobernuari hertsatuki eskatzen dio har ditzala bidezko neurriak eta ezar ditzala jarduera protokoloak, Laneko Arriskuak Prebenitzeko Atalarekin batera, amiantoa duten elementu edo higiezinetan nola esku hartu behar den edo nola konpondu behar diren zehazteko.

Asimismo se insta al Gobierno Municipal a que adopte las medidas oportunas y protocolos de actuación, junto con el servicio de prevención laboral, a seguir en la intervención o reparación de elementos o inmuebles que contengan amianto.

3.- Era berean, hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari jar dezala martxan eta planifika dezala udal eraikin edo lursailetan dagoen amiantoa deuseztatzeko eta kentzeko programa bat, lehentasuna emanda egoerarik okerrenean daudenei edo bizitza erabilgarria amaitua dutela ezagun dutenei.

3.- Se insta asimismo al equipo de gobierno a poner en marcha, y planificar, un programa de erradicación y retirada del amianto presente en edificaciones o parcelas municipales; priorizando aquel que se encuentre en peor estado o que haya dado muestras de finalización de su vida útil.

4.- Hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari azter dezala zer programa jar litekeen martxan herritarrak amiantoa deuseztatzearen eta jarraibideak betetzearen komenigarritasunaz sentsibilizatzeko.

4.- Se insta al equipo de gobierno a estudiar la puesta en marcha de programas de sensibilización de la población sobre la conveniencia de eliminación del amianto y de las pautas a seguir.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

Ricardo Burutaran Ferré
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Alfonso Gurpegui Ruiz jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Miren Azkarate Villar andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Alfonso Gurpegui Ruiz, D. Loïc Alejandro y Dª. Miren Azkarate Villar, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**22. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren 2016/2017ko prezio publikoen igoera dela eta.**

"Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 18an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren Artezkaritza Kontseiluaren otsaileko bileran

**22. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la subida de precios públicos del año 2016/2017 de la Escuela Municipal de Música y Danza.**

"Naiara Sampedro Pérez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Ayuntamiento Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación substanciada en la Comisión de Servicios a las Personas del 18 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

Según se nos comunicó en el Consejo Rector de la Escuela Municipal de Música y Danza del

jakinarazi zitzaigun 2016/2017ko prezio publikoek %1eko igoera izango zutela.

mes de febrero, los precios públicos se incrementarán un 1 % en el periodo 2016-2017.

Euskal Autonomia Erkidegoko musika eskolek Eusko Jaurlaritzarekin adostutakoaren baitan, aurreko urteetan igoerak egin behar izan ziren, prezio publikoetan %33ko finantziaziora iristeko, eta helburu hori jada bete da 2015/2016ko ikasturterako.

En el marco del acuerdo suscrito por las escuelas de música de la Comunidad Autónoma Vasca con el Gobierno Vasco, en ejercicios anteriores hubo que incrementar los precios, para alcanzar una financiación del 33 % en los precios públicos, y ese objetivo ya se ha alcanzado en el curso 2015-2016.

Igoera honen arrazoia, aldiz, Udaleko Musika eta Dantza Eskolako aurrekontuetako Giza Balibideen atalean egin beharreko esfortzuaren ondorioa da eta horren aurrean familiei prezioa igotzea erabaki da.

Sin embargo la razón de ese incremento es consecuencia del esfuerzo que debe realizar la Escuela de Música y Danza en el capítulo de recursos humanos de sus presupuestos, ante lo cual han optado por aumentar el precio a las familias.

Hala ere, Udalaren kapitala aintzat hartuta, kreditu aldaketa egin eta familiei esfortzu ekonomikorik eskatzea saihestu daitekeelako eta batzordean hari buruz emandako azalpenak eskasak izan zirelako, hauxe da EH Bildu taldeak aurkeztutako

De todos modos, tomando en consideración el capital del Ayuntamiento, puesto que se puede realizar una modificación de crédito y evitar requerir a las familias un esfuerzo económico y que las explicaciones ofrecidas en la comisión al respecto resultaron insuficientes, el grupo EH Bildu presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2016/2017ko Udaleko Musika eta Dantza Eskolaren prezio publikoei %1eko igoera ez aplikatzea susta dezala.

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que promueva no incrementar los precios públicos de la Escuela Municipal de Música y Danza para 2016-2017.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, %33ko finantzaketa akordioa behin beteta, datozen lau urteetan Udalak portzentaje handiagoa bere gain hartzea, familiei dagokiena jaitsiz, eta susta dezala Eusko Jaurlaritzak ere gauza bera egitea.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno municipal a que, una vez cumplido el acuerdo de financiación al 33 %, en el próximo cuatrienio el Ayuntamiento asuma un mayor porcentaje, disminuyendo el correspondiente a las familias, y a que promueva que el Gobierno Vasco proceda del mismo modo.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Donostian, 2016eko apirilaren 22an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

En San Sebastián, a 22 de abril de 2016

Naiara Sampedro Perez,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Naiara Sampedro Perez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Miren Azkarate Villar andreak eta Jose Luis Arrue Pinto jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Naiara Sampedro Pérez, Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Miren Azkarate Villar y D. José Luis Arrúe Pintó, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**23. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, udal-brigaden azterketari buruzkoa.**

"Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 18an Zerbitzu Orokorren batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko azaroaren 26an, EH Bildu udal

**23. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el examen de brigadas municipales.**

"Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios Generales de 18 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

El 26 de noviembre de 2015, el grupo municipal

taldeak kontrol-mozio bat aurkeztu zuen Udalbatzan bi eskaera eginez: alde batetik, Udal Gobernuak brigaden egitura azter zezala zerbitzuan hobekuntzak egiteko eta, bestetik, LEP bat egiterako orduan lehentasuna eman ziezaiola udal-brigaden gaiari.

EH Bildu presentó una moción de control en el Pleno en la que se formulaban dos peticiones: por un lado, que el Gobierno Municipal llevara a cabo un estudio sobre la estructura de las brigadas municipales, con el objetivo de realizar mejoras en el servicio, y, por otro lado, que diera prioridad a las brigadas municipales a la hora de convocar una OPE.

Nahiz eta Udal Gobernuak kontrol mozioaren aurkako botoa eman zuen, brigadei buruzko azterketa bat martxan jarri du. Hilabete batzuk pasatu dira, eta oraindik ez da txostenik aurkeztu eta ez dago argi noiz amaituko den ikerketa, nahiz eta Udaleko sindikatuek behin eta berriz eskatu duten egutegi bat zehaztea.

Aunque el Gobierno Municipal votó en contra de esta moción de control, puso en marcha un estudio sobre las brigadas. Han transcurrido varios meses desde entonces, y todavía no se ha presentado ningún informe y tampoco está clara la fecha en la que concluirá el estudio, aunque los sindicatos municipales han solicitado, en reiteradas ocasiones, que se fije un calendario.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Dagoeneko Udal Gobernuak aldaketak egin ditu udal-brigadetan -txoferren kasuan, esate baterako-, nahiz eta azterketa bukatu gabe egon eta ondoriorik ez izan.

El Gobierno Municipal ya ha realizado cambios en las brigadas municipales, como es el caso de los chóferes, aunque el estudio esté todavía sin concluir y no pueda surtir efectos.

EH Bildu udal taldeak begi onez hartzen du Udal Gobernuak udal-brigaden inguruko azterketa martxan jartzeko hartu duen erabakia, baina edozein azterketa edo diagnostikok kronograma bat eskatzen du halabeharrez; bestela prozesua asko luzatuko delako eta helburu zehatzak ez direlako definituko.

El grupo municipal EH Bildu ve con buenos ojos el acuerdo adoptado por el Gobierno Municipal de realizar un estudio sobre las brigadas municipales, pero cualquier estudio o diagnóstico requiere indefectiblemente un cronograma, ya que, de lo contrario, se retrasará el proceso y no se definirán los objetivos específicos.

Apirilaren 18ko batzordean ez zen halakorik zehaztu.

En la comisión del 18 de abril no se concretó esta cuestión.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari zehaztu dezala udal-brigaden azterketarekin bat datorren kronograma bat, azterketaren

1. El Pleno solicita al Gobierno Municipal que fije un cronograma en función del estudio de las brigadas municipales y que establezca un

ondorioak aurkezteko epea ezarriz.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta azterketaren amaiera data konpartitu ditzala langileen batzordearekin, behin baino gehiagoetan eskatu duten bezala.

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

plazo para presentar las conclusiones de dicho estudio.

2. El Pleno solicita al Gobierno Municipal que informe a la Comisión de Personal del cronograma y de la fecha de finalización del estudio, respondiendo así a su reiterada demanda.

San Sebastián, 22 de abril de 2016

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Olaia Duarte López, D. Loïc Alejandro, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Juan Ramón Viles Mitxelena, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (7) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**24. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Arte Ederrak eraikinari buruz aurtengo otsailaren 25ean erabakitakoaren ondoriozko egoera dela eta**

"EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo

**24. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el Bellas Artes tras la resolución del Ararteko de 25 de febrero de 2016.**

"Ricardo Burutaran Ferré, Concejal del Grupo

Burutaran Ferre naizen honek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten dut, Arte Ederrak eraikinari buruz aurtengo osatailaren 25ean erabakitakoaren ondoriozko egoera dela eta. Mozioa martxoaren 14ko batzordean egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Ancora plataformak, kultura ondarea babesteko eta aldezteko hiri elkarteak, kexa bat jarri zuen Arartekoan, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak 2015eko urriaren 9an emandako gauzatze aginduaren kontra. Haren bidez, izan ere, jabeei agindu zien Arte Ederren antzokiko kupula “kentzeko” eta ondoren berreraikitzeko, hartarako eperik eman gabe.

Bada, Arartekoaren ebazpenak hitzez hitz dioenez: “Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak berretsita, prozedura 'ezegoki’ baten arabera jardun du, eta, horren ondorioz, aurri espediente bat irekitzeko modua izan da, elementu babestu bat eraistea erabakitzeko, ez beste ezertarako”.

Gainera, ebazpenak ondokoa dio: “”Espediente horretan ez dela justifikatzen ezinbesteko arrazoirik, udal eta foru administrazioek neurri hori hartzeko bidea izateko modukorik”. Eta hori oso kontu larria da, hala jarduteko ezinbesteko baldintza baita hori; izan ere, neurri horrek egiaz izan behar du “salbuespenezkoa”, eta “espediente administratiboan behar bezala justifikatuta dagoenean baino” ezin da halakorik egin. Arartekoaren iritziz, ordea, ez da hala gertatu.

Municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, para su tratamiento en Pleno, sobre el Bellas Artes tras la resolución del Ararteko de 25 de febrero del presente. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión el pasado 14 de marzo.

JUSTIFICACIÓN

La plataforma Ancora, agrupación cívica constituída para la protección y defensa del patrimonio cultural, presentó queja ante al Ararteko contra la Orden de ejecución de 9 de octubre de 2015 del delegado de Urbanismo Sostenible, por la que se ordena a la propiedad la “retirada” de la cúpula del Teatro Bellas Artes y, sin fijar un plazo, la reconstrucción de la misma.

En la Resolución del Ararteko se dice textualmente: “En el caso de la actuación municipal, ratificada por el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se ha seguido por las administraciones un procedimiento 'impropio' que ha permitido iniciar un expediente de ruina a los meros efectos de acordar el derribo de un elemento protegido”.

También se recoge en la citada Resolución lo siguiente: “En ese expediente no consta ninguna justificación de la fuerza mayor que habilitaría a la administración municipal y foral a tomar esa medida”. Se trata de algo particularmente grave, ya que es uno de los elementos exigidos e imprescindible habilitante para poder adoptar una medida que debe ser ciertamente “excepcional” y “sólo cuando quede debidamente justificado en el expediente administrativo”; algo que, al parecer del

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Ararteko, no ha sucedido.

"Premiazko neurri hori hartzeko baimena ematerakoan ez zela aintzat hartu zer beste aukera egon zitezkeen IDOMen txostenean jasotako pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko, eta adierazi du beste aukerarik egon ez balitz soilik izango zela onargarria kupula eraistea; hala ere, IDOMen txosten irakurrita, badirudi bazirela beste bi aukera".

Asimismo se concluye que "la autorización de esa medida urgente ha sido otorgada sin considerar otras posibles opciones que garantizasen la seguridad de personas y bienes recogidas en el informe de IDOM"; indicándose que la "demolición de la cúpula sólo era admisible en caso de no existir otras alternativas; sin embargo, de la lectura del informe de IDOM se desprende la existencia de dos alternativas".

Udal Gobernuari horretaz galdetu ondoren, Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak adierazi zigun Gobernuak agindu duela aipatu kupula berreraikitzeko proiektua idaztea. Gerora jakin dugunez, lana amaituta omen dago, Arkitektoen Elkargoak noiz ikus-onetsiko duen zain, Udalari aurkeztu eta eman aurretik.

Interpelado el Gobierno Municipal al respecto, nos informó el delegado de Urbanismo Sostenible del encargo realizado, por parte del Ayuntamiento, para redactar el proyecto de reconstrucción de la citada cúpula. Con posterioridad hemos podido también saber que el trabajo al parecer está finalizado, pendiente de visado por el Colegio de Arquitectos, de forma previa a su presentación y entrega al Ayuntamiento.

Egia esan, pausuak ematen jarraitu arren, oraindik ez dakigu noiz berrezarriko duten erauzitako elementua, udal agindua beteta. Begi bistan dago egoera horrek denboran luzatzeak babesturiko elementua endekatzea eragiten eta areagotzen duela. Hori dena, gainera, gure hiria Europako Kultur Hiriburua den urtean.

Lo cierto es que aunque se sigan dando pasos, todavía desconocemos cuando, en cumplimiento de la orden municipal, se producirá la restitución del elemento amputado. Es evidente que la continuidad en el tiempo de esta situación provoca e intensifica un deteriodo progresivo del elemento protegido. Todo ello, además, en un año en que nuestra ciudad es capital cultural europea.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldearen KONTROL MOZIOA

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari kronograma zehaztu bat egitea, betearazte subsidiarioa gauzatzeko unean uneko mugarriak ezarrita, Arte Ederrak eraikineko kupula behin betiko berreraikitzeko.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a elaborar un cronograma detallado, con hitos parciales de la ejecución subsidiaria, para la definitiva reconstrucción de la cúpula del Bellas Artes.

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu taldeari eragindako beste erakundeekin batera koordinatzea Arte Ederrak eraikinari hasierako distira itzultzeko beharrezko pausuak, merezi duen balioa izateko formulak aztertzeaz batera.

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno a coordinar, junto con otras instituciones implicadas, los pasos necesarios a dar para devolver al Bellas Artes a su esplendor original; estudiando fórmulas que pongan en valor el mismo.

En Donostia a 22 de abril de 2016

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del Grupo Municipal de EH BILDU".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutarán Ferré, D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK:15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

---------------

**25. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, arrazakeria eta xenofobiaren kontrako politika bateratuak direla eta.**

"Naiara Sampedro Perez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau

**25. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre las políticas unificadas contra el racismo y la xenofobia.**

"Naiara Sampedro Perez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta

aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko apirilaren 18an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ean, ICCren onespenarekin, Donostia kulturen arteko hiri izendatzeko adierazpena onartu genuen talde politiko guztiek eta hari buruzko irakurketa egin genuen udaletxeko terrazan, jatorri anitzeko hainbat pertsona irakurketara gerturatu zirela. Adierazpen hartan, jatorri eta kultura aniztasuna, migrazio eta asentamendu prozesuen ondorioz, XXI. mendeko Donostiaren elementu bereizgarriak direla aitortu zen eta horrelaxe jarri genuen balioan herritarren aurrean.

Konpromiso horri eta beste zenbaiti jarraiki, 2015ean berriro ere, martxoaren 21aren harira (Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna), talde politiko guztiok adierazpen instituzional bateratuaren irakurketa publikoa egin genuen. Eta berriro ere adierazi genuen irmoki ahalegin berezia egingo genuela, aurrea hartu eta salatzeko sexu, nazionalitate, jatorri etniko edo kultural, aukera sexual, desgaitasun edo sinesmenengatiko bazterkeria.

2016an gaude eta Donostia ezberdinen arteko elkarbizitzaren baloreetan oinarritutako Kultur Hiriburutzan murgildurik dagoen bitartean, Europan arrazakeria eta xenofobia jarrerak zabaltzen ari dira. Euskal Herrian bertan ere diskurtso xenofoboak entzun ditugu arduradun politiko eta instituzionalen ahotan.

la siguiente moción para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada a la Comisión de Servicios a las Personas del 18 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En 2014, con el visto bueno de ICC, todos los grupos políticos aceptamos la declaración de Ciudad Intercultural para San Sebastián y llevamos a cabo una lectura al respecto en la terraza del Ayuntamiento, a la que acudieron personas de diferentes orígenes. En aquella declaración, se reconocía la diversidad de procedencias y culturas, consecuencia de los procesos de migración y asentamiento, como elemento característico del San Sebastián del siglo XXI, y así lo destacamos y valoramos ante sus ciudadanos.

En consonancia con este y otros compromisos, en 2015, el 21 de marzo (Día Internacional en contra del Racismo y la Xenofobia), todos los grupos políticos hicimos una lectura pública de una declaración institucional unificada. En ella, volvimos a afirmar con ahínco que realizaríamos un esfuerzo especial para prevenir la discriminación por razón de sexo, nacionalidad, origen étnico o cultural, opción sexual, discapacidad o creencias, y, en caso de que sucedieran, para denunciarlas.

Ahora, en 2016, mientras San Sebastián está inmerso en la celebración de la Capitalidad Cultural, basada en los valores de la convivencia entre diferentes, en Europa se están extendiendo las posturas racistas y xenófobas. También en la propia Euskal Herria hemos escuchado discursos xenófobos en boca de nuestros y nuestras representantes políticos e institucionales.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

2016ko martxoaren 21erako, EH Bilduk orain arteko konpromisoei jarraiki eta Udal Gobernutik proposamenik ez zetorrela ikusirik, adierazpen instituzionala egiteko proposamena luzatu zuen, baina Udal Gobernuak ez zuen konpromisoen inguruko irakurketa publikorik bideratu.

Hilabete honetako Pertsonen Batzordean gaia aintzat hartuko dela adierazi den arren, jasotako erantzuna orokorra eta zehazgabea da. Horregatik, hauxe da EH Bildu udal taldeak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari arrazakeriaren eta xenofobiaren kontrako salaketa lana, sentsibilizazio kanpainak eta ekimenak hirian ugaritu ditzan, talde politiko eta hiriko eragile zein herritarren arteko bateratasuna eta haien parte hartzea bermatuz.

2.-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ahalegin berezia egin dezala hiriko eragile eta talde politikoekin adostasunak bilatzeko eta herritarrak gonbidatuko diren adierazpen instituzionalaren onarpena eta irakurketa publikoa burutu dezan.

Donostian, 2016eko apirilaren 22an

Naiara Sampedro Perez
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

EH Bildu, en consonancia con los compromisos adquiridos hasta ahora y viendo que el Gobierno Municipal no planteaba ninguna propuesta, propuso hacer una declaración institucional para el 21 de marzo de 2016, pero el Gobierno Municipal no organizó ninguna lectura pública en torno a este compromiso.

Aunque se ha manifestado que el tema será tenido en cuenta en la Comisión de Servicios a las Personas de este mes, la respuesta recibida es general e imprecisa. Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno Municipal insta al Gobierno Municipal a que intensifique en la ciudad la labor de denuncia contra el racismo y la xenofobia, así como las campañas de sensibilización y las distintas iniciativas en este sentido, garantizando la convergencia de los grupos políticos, de los y las agentes de la ciudad y de la ciudadanía y asegurando la participación de estos.

2.- El Pleno Municipal insta al Gobierno Municipal a que, en el Día Internacional contra la el Racismo y la Xenofobia, realice un esfuerzo especial en la búsqueda de acuerdos entre los y las agentes de la ciudad y los grupos políticos y a que apruebe una declaración institucional que sea leída posteriormente en un acto público al que se invite a toda la ciudadanía.

San Sebastián, 22 de abril de 2016

Naiara Sampedro Perez,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Naiara Sampedro Perez andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora Dª. Naiara Sampedro Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**26. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Estrategia 2020 txostenaren baitan argitaratutako datuei buruzkoa.**

“Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 18an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016eko urtarrilean, Necesidades de inclusión social en Donostia1 izeneko txostena amaitu zen, estrategia 2020 ekimenaren baitan egin dena. Txosten honek gure hiriko errealitate sozio-ekonomikoa eta demografikoaren inguruko datu garrantzitsuak mahai gainean jartzen ditu eta, horri jarraituz, errealitate horren baitan zein erabaki politiko hartu behar diren antzeman daiteke.

Arlo ekonomikoari dagokionez, txostenean

**26. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre los datos publicados del informe Estrategia 2020.**

“Olaia Duarte Lopez, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción, para su tratamiento en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Servicios a las Personas el 18 de abril de 2016.

JUSTIFICACIÓN

En enero de 2016, se terminó de elaborar el informe denominado Necesidades de inclusión social en Donostia1, que forma parte de la iniciativa Estrategia 2020. Este informe pone sobre la mesa importantes datos sobre la realidad socio-económica y demográfica de nuestra ciudad, por lo que es útil para valorar qué decisiones políticas deberían tomarse de acuerdo a esa realidad.

En lo que se refiere al ámbito económico, la

aipatzen da aberastasuna ez dagoela era ekitatiboan banatuta auzoetan: los datos recabados apuntan a la existencia de importantes desigualdes de renta por género y nivel socioeconómico entre diferentes zonas de la ciudad... Se dan importantes diferencias por barrios. Miramoneko etxe bateko diru-sarrerak 85.000 euro/urteko diren bitartean, Altzan baztez bestekoa 32.500 eurokoa da. Genero desberdintasunari dagokionez, emakumeen diru-sarrerak gizonenak baino % 32,8 baxuagoak dira gure hirian. Honek pobreziaren feminizazioa dakar.

riqueza de la que se habla en el informe no está repartida de forma equitativa entre los barrios: los datos recabados apuntan a la existencia de importantes desigualdades de renta por género y nivel socioeconómico entre diferentes zonas de la ciudad... Se dan importantes diferencias por barrios.Mientras que los ingresos medios de una vivienda de Miramon son de 85.000 euros al año, los de una de Alza son de 32.500 euros. En lo que respecta a la desigualdad de género, los ingresos de las mujeres, en nuestra ciudad, son un 32,8 % más bajos que los de los hombres. Lo que conlleva la feminización de la pobreza.

Donostiar biztanleriaren % 10,7 pobrezia-tasa arriskuan dagoela aipatzen da txostenean; hau da, 19.900 pertsona bizi dira gure hirian 852 euro baino gutxiagorekin hilabetero. Pobrezia egoera larriari dagokionez, 8.375 pertsona bizi dira Donostian 568 eurorekin hilabetero (biztanleriaren % 4,5). Laguntza-ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen datuak begiratzen baditugu, txostenak dio 6.361 biztanlek jasotzen dutela RGI-PCV gure hirian eta 233 familiek AGI. Datu hauek adierazten dute, nahiz eta laguntza-ekonomikoak egon, familia askok pobrezia egoeran jarraitzen dutela. Hau ere txostenean aipatzen den errealitatea da: no todos los grupos que acceden al sistema de garantía de ingresos consiguen evitar la pobreza, resulta especialmente llamativo el caso de las personas menores de edad y podría estar indicando que las cuantías de la RGI-PCV y AGI son insuficientes para cubrir las necesidades de las familias con hijos e hijas menores.

Un 10,7% de la población de San Sebastián está en riesgo de pobreza, según el informe. Es decir, que en nuestra ciudad viven 19.900 personas con menos de 852 euros al mes. En lo que se refiera a la situación de pobreza grave, hay 8.375 personas en San Sebastián que viven con 568 euros al mes, es decir, el 4’5% de la población. Si analizamos los datos de las personas que perciben ayudas económicas, observamos, según el informe, que 6.361 habitantes perciben la RGI-PCV en nuestra ciudad, y 233, la AGI. Estos datos reflejan que, aunque se concedan ayudas económicas, muchas familias continúan viviendo en situación de pobreza. Esta es también una realidad reflejada en el informe: no todos los grupos que acceden al sistema de garantía de ingresos consiguen evitar la pobreza, resulta especialmente llamativo el caso de las personas menores de edad y podría estar indicando que las cuantías de la RGI-PCV y AGI son insuficientes para cubrir las necesidades de las familias con hijos e hijas menores.

Esanguratsua da Gipuzkoako datuak, Bizkaia

Resulta significativo que, si comparamos los

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

edo Arabakoekin konparatzen baditugu EAEko positiboenak direla. Txostenak argi uzten du azken urteetan politika sozial alorrean hartutako neurriak eta erabakiak klabeak izan direla pobrezia-tasa ez handitzeko: considerando las prestaciones del sistema de garantía de ingresos vigente en Gipuzkoa (RGI, PCV, AES y AGI) la tasa de pobreza severa se ha reducido un 34,4%, permitiendo que 20.300 personas eviten la pobreza en 2014. Hay que destacar que el sistema de prestaciones vigente en Gipuzkoa ha tenido un papel importante a la hora de amortiguar el impacto de la crisis económica en la población entre 2012 y 2014.

Pertsona migratzaileen egoerari erreparatzen badiogu, egindako azterketatik ateratako ondorioek argi adierazten dute pertsona hauek egoera larriagoa dutela: la población extranjera se encuentra en situación de especial vulnerabilidad frente a la pobeza, siendo la tasa de pobreza severa de este colectivo 6,2 veces mayor que la registrada para el resto de la población. Si las personas beneficiarias de las ayudas consiguen situarse fuera del radio de riesgo de exclusión seguramente será gracias a las ayudas sociales y ello conlleva a una dependencia de la protección social que les sitúa en una gran vulnerabilidad ante una situación de recortes o reducción del Estado de Bienestar.

Harrigarria da, horregatik, Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, martxoaren 21ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak komunikabideen bidez emandako mezua: AGIak dei efektua egiten du ohikoak ez diren etorkinengan, ez du pertsonen gizarteratzean eraginik eta laguntza berrikusiko da Aste Santua eta gero udal guztiekin. Horrelako

datos de Gipuzkoa, con los de Bizkaia o Álava, los nuestros son los más positivos de la CAV. El informe revela que las medidas y decisiones adoptadas durante los últimos años en el ámbito de las políticas sociales han resultado clave para que no haya aumentado la tasa de pobreza: considerando las prestaciones del sistema de garantía de ingresos vigente en Gipuzkoa (RGI, PCV, AES y AGI) la tasa de pobreza severa se ha reducido un 34,4%, permitiendo que 20.300 personas eviten la pobreza en 2014. Hay que destacar que el sistema de prestaciones vigente en Gipuzkoa ha tenido un papel importante a la hora de amortiguar el impacto de la crisis económica en la población entre 2012 y 2014.

En cuanto a la situación de las personas migrantes, las conclusiones extraídas del estudio son claras con respecto a la mayor gravedad de la situación de estas personas: la población extranjera se encuentra en situación de especial vulnerabilidad frente a la pobreza, siendo la tasa de pobreza severa de este colectivo 6,2 veces mayor que la registrada para el resto de la población. Si las personas beneficiarias de las ayudas consiguen situarse fuera del radio de riesgo de exclusión seguramente será gracias a las ayudas sociales y ello conlleva a una dependencia de la protección social que les sitúa en una gran vulnerabilidad ante una situación de recortes o reducción del Estado de Bienestar.

Por todo ello, sorprende el mensaje transmitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa en los medios de comunicación el 21 de marzo, Día Internacional contra el Racismo. Según ese mensaje, la ayuda denominada AGI genera un efecto llamada para los inmigrantes no habituales y no resulta efectiva para la socialización de las personas, por lo que esta

mezuak jarrera xenofoboak areagotzen dituztela uste dugu eta migratzaileak/laguntza ekonomikoa lotura gizarteratzen duten mezu negatiboak dira.

ayuda se revisará con todos los ayuntamientos, una vez pasada la Semana Santa. Consideramos que este tipo de mensajes producen un incremento de las actitudes xenófobas y que los mensajes que transmiten a la sociedad la identificación entre migrantes y ayudas económicas son negativos.

Gainera, dei-efektuarena datu faltsua da, Foru-Aldundiaren txosten teknikoak irakurtzen baditugu: la AGI no ha tenido un efecto significativo en el volumen total de la población inmigrante en Gipuzkoa, se ha producido un “efecto salida” en toda España y también en Euskadi. Lo que ha producido la AGI es que ese fenómeno se ha “compensado” y el volumen total de inmigrantes prácticamente no ha bajado en Gipuzkoa.

Además, el dato del efecto llamada es falso, como comprobamos al leer los informes técnicos de la propia Diputación Foral: la AGI no ha tenido un efecto significativo en el volumen total de la población inmigrante en Gipuzkoa, se ha producido un “efecto salida” en toda España y también en Euskadi. Lo que ha producido la AGI es que ese fenómeno se ha “compensado” y el volumen total de inmigrantes prácticamente no ha bajado en Gipuzkoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko jakinarazi du AGI kenduko duela, nahiz eta arlo-sozialeko eragileek esan horrelako erabaki batek ondorio kaltegarriak eragingo dituela gure hiriko familien pobrezia eta gizarteratze egoeran.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ya ha anunciado que va a retirar la ayuda denominada AGI, a pesar de que agentes del ámbito social han manifestado que un decisión de ese tipo tendrá consecuencias negativas en la pobreza de las familias de nuestra ciudad y en la integración social.

EH Bildun uste dugu beharrezkoa dela laguntza sozialen murrizketa horrek donostiarrengan nolako ondorioak izango dituen eta Donostiako Udaleko gizarte-zerbitzuetan zein eragin izango duen aztertzea. Bestalde, Estrategia 2020 txostenean jasotako datuek argi uzten dute pobrezia-egoeran egonda, hiru urteko errolda epea betetzen ez duten pertsonak bazterkeria-egoera larrian egongo direla; batez ere, emakumeak eta adin-txikikoak badira.

EH Bildu considera necesario que se analice qué consecuencias tendrá sobre los y las donostiarras este recorte de las ayudas sociales, así como qué incidencia tendrá en los servicios sociales del Ayuntamiento de San Sebastián. Por otro lado, los datos recopilados en el informe Estrategia 2020 muestran claramente como las personas que se encuentran en situación de pobreza, si no cumplen el requisito de tres años de empadronamiento, se encontrarán en situación grave de exclusión, especialmente, si se trata de mujeres y menores.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Apirileko batzordean zinegotzi ordezkariak ez zuen inongo azalpenik eman honi buruz.

Horregatik, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari aztertu dezala zein eragin izango duen AGI izeneko laguntza-soziala ezabatzeak Donostiako familien pobrezia edo bazterkeria egoeran.

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat martxan jar dezala hiru urteko errolda epea betetzen ez duten baina pobrezia edo bazterkeria egoeran dauden pertsonak nola atendituko diren zehazteko, batez ere adin txikikoen eta emakumeen kasuan.

3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari pertsona migratzaileen eta diru-laguntzen arteko loturaren inguruko sentsibilizazio kanpaina martxan jar dezala dei-efektuari eta antzeko zurrumurru faltsuei aurre egiteko.

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

En la comisión de abril, la concejala delegada no dio ninguna explicación sobre esta cuestión

Por todo ello, y teniendo en cuenta la gravedad de la situación, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

1. El Pleno Municipal solicita al Gobierno Municipal que estudie cómo influirá la retirada de la ayuda social AGI en la situación de pobreza o exclusión de las familias donostiarras.

2. El Pleno Municipal solicita al Gobierno Municipal que ponga en marcha un plan en el que se especifique cómo se va a atender a las personas que, no cumpliendo el requisito de tres años de empadronamiento, se encuentren en situación de pobreza o exclusión, sobre todo, en el caso de menores y mujeres.

3. El Pleno Municipal solicita al Gobierno Municipal que ponga en marcha una campaña de sensibilización en referencia a la conexión que se hace entre las personas migrantes y las ayudas económicas, para así hacer frente a falsos rumores como el referente al efecto llamada y otros.

San Sebastián, 22 de abril de 2016

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Olaia Duarte Lopez andreak, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Olaia Duarte López, Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó y Dª. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

**KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK:15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK:15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 18 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**27. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, autobus geltokia dela eta.**

**27. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre la estación de**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**autobuses.**

“Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 14an, Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

“Axier Jaka Goikoetxea, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción, a la consideración del Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada el 14 de marzo de 2016 en la Comisión de Servicios a las Personas.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko otsailaren 5ean Atotxako autobus geltoki berria inauguratu zen arren, ia hiru hilabete pasatu dira, eta oraindik ere urbanizazio lanak amaitu gabe daude eta autobus geltokiaren zerbitzuak defizientzia nabariak izaten jarraitzen du. Batzordeetan, martxoko hasierako amaitze-data atzeratuko zela ikusita, epeen inguruan galdetu eta erantzun zitzaigun urbanizazio lanak amaitzea martxo amaierarako aurreikusita zegoela, baina aste honetan bertan prentsan irakurri dugu maiatza bukaerarako izango dela azkenean; alegia, geltokiaren lehen inaugurazio-saiakera baina 5 hilabete beranduago.

Geltoki-zerbitzuari dagokionez, oraindik orain eta batzordeetan gaia landu dugun arren, instalazio eta zerbitzu kalitateak gabezia nabariak izaten jarraitzen du: igogailu eta eskailera mekanikoek arazo teknikoak izaten dituzte; seinaletika oraindik ez dago behar bezala ezarria eta, oraindik orain, Lurraldebus zerbitzuak bertan gelditzeko foru agindua ez dago sinatua, Atotxako geltokiak PioXII.ekoak baino autobus-intermodalitate urriagoa izaten jarraitzen duela.

Horiek horrela, hauxe da EH Bildu taldeak

JUSTIFICACIÓN

Aunque la nueva estación de Atocha se inauguró el 5 de febrero de 2016, casi han transcurrido tres meses, y las obras de urbanización todavía no están finalizadas y el servicio de la estación sigue presentando notables deficiencias. En las comisiones, a la vista de que la fecha inicial de finalización se iba a retrasar, interpelamos sobre los plazos, y se nos respondió que se preveía finalizar los trabajos para finales de marzo, pero esta misma semana hemos podido leer en la prensa que, finalmente, será a finales de mayo; es decir, 5 meses después del primer intento de inauguración de la estación.

En lo que atañe al servicio de la estación, aunque hace poco que hemos tratado el asunto en las comisiones, sigue teniendo carencias notables la calidad de instalaciones y servicios: los ascensores y escaleras mecánicas presentan deficiencias técnicas; la señalética todavía no está adecuadamente emplazada y, aún no se ha firmado el decreto foral para que los servicios de Lurraldebus estacionen en ella, continuando la estación de Atocha con una intermodalidad de autobuses inferior a la de Pio XII.

Es por ello por lo que el grupo EH Bildu

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala Atotxako geltokiaren gainazaleko urbanizazio lanak lehenbailehen amaitzea.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala autobus geltokiaren zerbitzua dagokion kalitate mailan eman dadin eta horretarako egungo gabeziak konpondu ditzala, operadore eta herritarren eskaerak ere aintzat hartuta.

Donostian, 2016ko apirilaren 22a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que garantice que finalicen lo antes posible las obras de urbanización en la superficie de la estación.

2.- El Ayuntamiento Pleno insta al Gobierno Municipal a que garantice que el servicio de la estación de autobuses se preste con un adecuado nivel de calidad y a que, para que así sea, remedie las carencias actuales, tomando en consideración las peticiones de las empresas operadoras y de la ciudadanía.

En San Sebastián, a 22 de abril de 2016

Axier Jaka Goikoetxea,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Enrique Ramos Vispo jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Enrique Ramos Vispo y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**28. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Txanpon Enea baserriko**

**28. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU sobre el tratamiento que le**

**ondareari dagokion trataera dela-eta.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 18an Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 5ean, lehen ekimenean agertu genuen moduan, XIX. mende hasieran zazpiehun bat baserri omen ziren Donostian, baina hiriaren hazkundea dela eta, gehienak desagertu dira. Batzuetan toponimo moduan gorde dira, inguruko kale, plaza edo dena delako bati izena emanez, baina gutxitan izan dugu aukera bestelako elementuak jaso, gorde eta gure oinordekoei legatzeko.

Txanpon Enea baserria (San Roke k. 57) tamalez baserri desagertuen zerrendara pasatzeko zorian dago, Donostiatik urrun bizi diren jabeek aspaldi saldu baitzuten, bertan etxeak eraikitzeko. Baserri honen aztarnak nolabait jasoak gera daitezen, batetik, bizilagunek inguruko kale berriari bere izena emateko proposamena egin zuten, talde honek bere egin zuen eta horretarako sortu zen batzordean onarpena eman zaio (oraindik izen definitiboa definitzeke: Txanpuene, Txanpoene, Txanponene, Txanpon Enea...). Eta, bestetik, otsailean egindako ekimenean, ideia eta proposamenak eman genituen baserrian oraindik ongi kontserbatuak dauden

**corresponde al patrimonio del caserío Txanpon Enea.**

“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación presentada el 18 de abril de 2016 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

Tal y como explicábamos en la iniciativa que presentamos el pasado 5 de febrero, a principios del siglo XIX había unos 700 caseríos en San Sebastián pero, debido al crecimiento de la ciudad, la mayoría de ellos ha desaparecido. En algunos casos nos han dejado un topónimo, que ha servido para dar nombre a alguna calle, plaza u otro lugar de los alrededores, pero en muy pocas ocasiones hemos podido recoger, conservar y mantener algún otro elemento como legado para las siguientes generaciones.

Desgraciadamente, el caserío Txanpon Enea (c/ San Roque 57) está a punto de pasar a formar parte de la lista de caseríos desaparecidos, pues sus dueños, que vivían lejos de San Sebastián, decidieron venderlo hace tiempo para construir viviendas en su lugar. Con el objetivo de recoger, de alguna manera, los restos de este caserío, los vecinos y vecinas presentaron una propuesta para dar su nombre a la nueva calle que se ha creado en esa zona. Este grupo municipal hizo suya dicha propuesta, pero, para ello, es necesario que la comisión creada a tal efecto dé su aprobación (todavía no se ha decidido el nombre definitivo: Txanpuene, Txanpoene,

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

elementu batzuen inguruan. Izan ere, elementu horiek Udal Gobernuak ezagutzen zituen, eta ea nola ziurtatuko zuen hori guztia etxebizitzak egiteko proiektuan bertan integratuko zela, kontserbaziorako interbentzioa jatorrizko ingurunean izan dadin. Udal Gobernuari galdetu nahi izan genion ea zer zuen pentsatua desagertuko den baserriaren arrastoak gure ondorengoentzat bermatuak gera daitezen.

Txanponene, Txanpon Enea…). Por otro lado, en la iniciativa que presentamos en febrero pusimos sobre la mesa varias ideas y propuestas sobre algunos de los elementos del caserío que aún se encuentran en buen estado de conservación. El Gobierno Municipal ya conocía estos elementos, y le preguntamos sobre la forma en que piensa garantizar la integración de todos ellos en el proyecto de construcción de viviendas, para que la intervención de conservación se realice en el emplazamiento original. Quisimos preguntar al gobierno municipal qué pensaba hacer para garantizar que los restos del caserío que está a punto de desaparecer no se pierdan y puedan conservarse para las generaciones futuras.

Egun, Txanpon Enea baserria katalogatua ez dagoenez, birrintzea posible izango da, eta, esan bezala, aspaldi eginiko akordio baten amaieraren aurrean izango gara aurki. Hala ere, Txanpon Enea baserriak elementu bereziak ditu, ondarearen ikuspuntutik gorde eta balioan jarri beharko liratekeenak. Bertako maizterrak horien berri jaso du, belaunaldi askoren oinordeko. Elementu garrantzitsuenak hauek lirateke:

- “La Nueva Barceloneta / 1773” idatzia duen harrizko ateburua
- Teilatuan dagoen gurutzea
- Ia erabat estalia egon arren, oraindik ongi kontserbatua dagoen iturri zaharra.

Dado que, a día de hoy, el caserío Txanpon Enea no está catalogado, nada impide su demolición y, tal como hemos explicado, pronto nos encontraremos en el tramo final de un acuerdo adoptado hace tiempo. De todos modos, el caserío Txanpon Enea contiene elementos especiales que merecen ser conservados y puestos en valor como legado. Quien durante años fuera inquilino del mismo guarda el testimonio de este legado que ha pasado de generación en generación. Incluimos aquí una relación de los elementos más destacables:

- Dintel de piedra con la inscripción “La Nueva Barceloneta / 1773”.
- La cruz del tejado.
- Una antigua fuente que se encuentra en buen estado de conservación, pese a estar casi totalmente cubierta.

Otsailean jasotako informazioaren arabera Udal Gobernuak guzti horren berri bazuela adierazi zuen, eta adostasuna eta konpromisoa agertu zituen elementuok zaindu, gorde eta egoki jasotzeko, etorkizuneko

Según la información que se nos proporcionó en febrero, el Gobierno Municipal tenía conocimiento de todo ello y mostró su conformidad y su compromiso para cuidar, conservar y recoger adecuadamente todos

donostiarrek ere ezagutu eta goza ditzaten.

estos elementos, para que los futuros y las futuras donostiarras también puedan conocerlos y disfrutarlos.

Otsailetik hona, aldiz, lan horiek ezagutu ordez, informazio kontraesankor eta kezkagarriak ailegatu ziren: hala nola baserria berehala botatzeko zantzuak, hasierako hirigintza-egitasmoa aldatzeko asmoa, eta horiekin batera, iturriaren beraren existentzia bera zalantzan jartzea. Zalantza hau kezka bihurtu zen, Txanpon Enea baserria botatzeko egitasmoan ikusi genuenean gurutzea eta ateburua gordetzeko neurriak espresuki jasoak zeudela, baina... ez besterik. Ondorioz, berriro ere Udal Gobernuari galdetu genion asmo, egitasmo eta gabezi hauen guztien inguruan.

Sin embargo, desde febrero hasta hoy, lejos de tener noticias sobre estos trabajos, nos ha llegado información contradictoria y preocupante: indicios de una demolición inminente del caserío, la intención de modificar el plan urbanístico inicial y, junto a ello, el hecho de que se haya puesto en entredicho la existencia misma de la fuente. Esta duda se convirtió en preocupación cuando vimos que en el proyecto de demolición del caserío Txanpon Enea estaba expresamente recogida la conservación de la cruz y del dintel, pero… nada más. Por ello, preguntamos nuevamente al Gobierno Municipal sobre su intención, sobre el proyecto y sobre las omisiones detectadas.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Udal Gobernuak egitasmoan izango diren aldaketen berri eman zigun, eta irisgarritasunarekin lotuta direnak. Halaber, gordeko diren elementuak hiru direla argitu zuen: aipatu diren biak (gurutzea eta ateburua), eta Arbaitz-enea jauregikoa zen garbitokia. Argipen horrekin batera berriz ere iturri zaharraren izate bera zalantzan jarri, eta, ezer ez dagoelakoan, lurrez estaltzeko asmoa ere aipatu zuen.

El Gobierno Municipal dio cuenta de las modificaciones que se efectuarán en el proyecto y que tienen que ver con la accesibilidad. Asimismo, aclaró que serán tres los elementos a conservar: los dos mencionados anteriormente (la cruz y el dintel) y el lavadero del palacio Arbaitzenea. Aclarada esta cuestión, una vez más puso en entredicho la existencia misma de la antigua fuente, y, considerando que no existe tal elemento, manifestó su intención de cubrirlo con tierra.

Zalantza hau ulertezina dela aurreratu genuen: une honetan iturria estalia dago eta bertan diren harri batzuk besterik ez dago ikusterik, baina, katalogatua egon den elementuaz ari bagara; existitu dela ezin da ukatu. Iturri honek inguruko baserriei ura ematen zien, gordeko den Arbaitz-enea jauregiko garbitokiari oraindik ere, eta 1608koak diren etxe txokoetara ailegatzen da. Balore sinboliko handiko iturri zaharraz ari

Ya adelantamos que cuestionar su existencia nos parece incomprensible: en estos momentos la fuente está cubierta y tan sólo se pueden apreciar algunas piedras; sin embargo, se trata de un elemento que ha estado catalogado, y, por lo tanto, no se puede negar su existencia. Esta fuente abastecía de agua a los caseríos de los alrededores, todavía suministra agua al lavadero del palacio Arbaitzenea, que va a ser conservado, y

gara: inguruari ura emateaz gain, Parte Zaharreko ur emailea baitzen, garaian harresien barruan zegoen Donostiari, alegia. Iturri funtzionala zen, ez hiria atontzen duenetakoa.

llegaba hasta los rincones de las casas que datan de 1608. Estamos ante una antigua fuente de gran valor simbólico: además de abastecer de agua a dicha zona, también la suministraba a la Parte Vieja, es decir, a la San Sebastián que en aquella época se situaba en el interior de sus murallas. Era una fuente funcional, no de las que se limitan a ornamentar la ciudad.

Egitasmo urbanistikoa aurrera eraman nahi duten pribatuek beren borondate ona agertu dute, beren kabuz espresuki azaldu dutenean gurutzea eta ateburua egoki jaso eta gordetzeko asmoa. Pentsatzekoa da asmo eta borondate berak izango dituztela iturri hau kontserbatzeko, Udalak horren garrantzia azaltzen badie. Horretarako, erraztasunak ematea egokia izateaz gain, posible ere bada: badira donostiarrak auzolanean aritzeko prestutasuna agertu dutenak, eta, Udalaren aldetik, makineria eta bestelako laguntza Brigaden bidez pertsona horien eskura jar daiteke edo Brigadak berak izan daitezke lurrak beharrezko lanetan lagun dezaketenak. Helburua argia eta konpartitua izatea da ezinbesteko bakarra.

La parte privada que quiere llevar a cabo el proyecto urbanístico ha mostrado su buena voluntad al manifestar expresamente y por iniciativa propia su intención de recoger y conservar adecuadamente tanto la cruz como el dintel. Es de suponer que también mostrarán la misma intención y voluntad si el Ayuntamiento les explica la importancia de conservar esta fuente. Para ello, no sólo es adecuado ofrecer facilidades, sino que también es posible: hay donostiarras que han mostrado su disponibilidad de trabajar en auzolan, y el Ayuntamiento bien podría poner a su disposición la maquinaria necesaria u otro tipo de ayuda, mediante las brigadas municipales, o incluso podrían ser las propias brigadas quienes colaboren en las tareas que sean precisas. Lo único imprescindible es tener un objetivo claro y compartido.

Donostian elementu gutxi ditugu 1813ko triskantza gainditu zutenak, hauek guztiak dira horietakoak. Berezko balorea edo/eta balore sinbolikoa duten elementuez ari gara, adituek ohartu duten moduan, eta, ondorioz, kontserbatzea eta balioan jartzea ezinbestekotzat jo behar dugu, Donostiako historiaren parte direlako. Herria jakitun, Amarako eta Aieteko bizilagunek eskaera hau espresuki egin dute, beraiekin une desberdinetan egin diren prozesu parta hartzaileetan eta, noski, erantzun positiboaren

San Sebastián cuenta con pocos elementos que sobrevivieron a la destrucción de 1813, y los que acabamos de mencionar son algunos de ellos. Se trata de elementos de valor intrínseco y/o valor simbólico, tal y como advierten los expertos y expertas, y, por tanto, su conservación y su puesta en valor debemos considerarlas como algo imprescindible, ya que forman parte de la historia de San Sebastián. Conocedores de ello, los vecinos y vecinas de Amara y de Aiete han manifestado expresamente esta petición en los procesos

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

zain daude.

participativos que se han realizado en diferentes momentos. Estamos a la espera de una respuesta positiva.

Horiek horrela, hauxe da gure MOZIOA:

Por todo ello, presentamos la siguiente MOCIÓN:

- Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, jabego pribatuarekin ados jarri ondoren, Txanpon Enea baserriko lurretan dagoen iturria estaltzen duen materiala kentzeko lanak eska ditzala (auzolanean, brigaden lana edo/eta laguntza edo bestelakoen bidez), eta elementu hori ere ingurune horretan egokitzat hartzen den lekura eramatea aurreikus dezala.

- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, previo acuerdo con la propiedad privada, encargue las labores de retirada de material que oculta la fuente situada en la parcela del caserío Txanpon Enea (mediante auzolana, trabajo y/o ayuda de las Brigadas, u otros) y prevea el traslado del citado elemento a donde se estime conveniente en ese entorno.

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

San Sebastián, 22 de abril de 2016

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak eta Enrique Ramos Vispo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro, Dª. Miren Albistur Garmendia y D. Enrique Ramos Vispo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

---------------

ETA BESTELAKO AZTERGAIRIK EZ DENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO ARRATSALDEKO HIRURAK HAMASEI GUTXIAGOTAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:

Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS CATORCE HORAS Y CUARENTA Y CUATRO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:

LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:

IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04